

Txantxangorriaren hegaldiak!

Bernardo Atxagak “Txantxangorria txantxate, birigarroa alkate, xoxoa dela mediante, txepetxa preso sartu dute” koplaz zahar honi emandako interpretazioaren arabera, txantxangorria urte berriaren ikur da, urte guztian ez baizik abenduan ikus dezakegula gure inguruan, eta entzun haren txantxana. Urte berriaren ikur izatea polita da, baina urte guztian oso gutxi agertzen da, eta gero eta hiritarragoa dugun gizartean gero eta ezezagunagoa, exotikoagoa da.

Aspaldiko esaera da, bestalde, Jesukristo gurutzan iltzaturik zela, arantzak kentzen aritu zitzaioela, eta Jesusen odol tanta paparrean gelditurik, horregatik dela papar-gorria. Esaera horren indarra, baina, hutsaren hurrengo dugu gaur egun.

Txori txikia da, bakartia, eta indibidualista. Hiruzpalau urte bizitzen da, egungo legegintzaldiak bezala. Egungo bizimodu hiritarrean ezer gutxi den, eta gehienentzat guztiz ezezaguna den txori txiki bakarti, indibidualista bat hautatu dute, beraz, euskararen ikur, EAEko hizkuntza-politikaren arduradunek.

Atzoko “gutxi asko da”-tik txantxangorriaren eskutik, “Eman hegoak euskarari”-ra igaro gara: “Elkarrekin hegan egitean, bertigoa badoa. (...) Elkarrekin,



Pako Sodupe

IDAZLEA

Txori txiki gisa irudikaturiko euskaldun apal horrixe egiten zaio gonbidapena, bere moduko txori txikiekin hegan egin, eta zeruaren mugara hel dadin, hots, euskararen salbamenaren zerura

zeruaren muga ez dago horren urrun. Elkarrekin hitz bat ozenago entzuten da, ehunka txoriren hegaldia bezala. Hau da gure sinboloa, denona. Euskaraz hitz egiteko gonbidapena”.

Txori txiki gisa irudikaturiko euskaldun apal horrixe egiten zaio gonbidape-

na, bere moduko txori txikiekin hegan egin, eta zeruaren mugara hel dadin, hots, euskararen salbamenaren zerura; eta, adoretzeko, muga hori urrun ez dagoela esaten zaio. Zer emozio sortuko ote du kanpainak gurean bizi den eraldunarengan? Errukia? Ezaxola?

Ehunka eta milaka txorik elkarrekin hegan egin dezagun, lehen eskakizuna euskararen ezagutza unibertsalizatzea da, hasteko, irakaskuntzaren bidez, eta horretarako behar diren politikak –D eredu indartu eta zabaldu; A iruzurra denez baztertu, eta B ere bai, bazterten joan, ehuneko handi batean ezgauza baita!– abian jartzea. Horrekin batean, zer beharrezkoak ditugun motibatzaileak, euskaraz egin nahia sortuko duen jendea. Zein premiazkoa genukeen ikasleak euskaraz egitera bultzatuko dituzten motibatzaileen sare handi bat; betiko arlo oso herrenak ahaztu gabe: Osakidetza, Ertzaintza, Justizia, eta estatuaren mendeko administrazioa.

Epe luzeko helburuak bete zain egon gabe, euskaldunok hegaldi gero eta luzeagoak eta eremu gero eta zabalagoetara eginez, gero eta txori txiki gehiagorekin. Kanpaina instituzional ausartagoak behar ditugu, eta helburu eta baliabideak ere bai! ■



Liburu azoka

Bermeon, martxoaren 11tik 20ra Lamera plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!